

I. Parte hartzera nortzuk daude gonbidatuak

Iruñeko Udalak *Programa* honen edukiak (184 *egileen eta Idazle eta irakurleen arteko topaketak* eta *ahozko narrazio saioak* + 72 orientazio bilerak) iriko Hezkuntza Bereziko, Helduen Hezkuntzako, Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 72 Ikastetxeei, publiko zein itunduei, eskaintzen zaie, doainik ere, ondoko eduki banaketaren arabera:

Hezkuntza Berezia eta Helduen Hezkuntza

3 jarduera + orientazio bilera 1

Hezkuntza berezian, entzuleen ezaugarriak kontuan harturik, *ahozko narrazio saioak* gomendatzen ditugu.

Haur eta Lehen Hezkuntza

3 jarduera + orientazio bilera 1

Ahozko narrazio jarduerak gomendatzen ditugu, Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte, eta *egileen eta idazle eta irakurleen arteko topaketak*, Lehen Hezkuntzako 3. ziklorako.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

2 jarduera + orientazio bilera 1

Berdin egin daitezke *topaketak* nahiz *ahozko narrazioak*, zikloaren programazioa zeinek baino zeinek osatzen duen hobekiago.

Jarduera bakoitzak ikastetxeko beste edozein eskola-saio adina iraunen du, betiere eskola orduen baitan. Eskolan barna eta eskola-orduetan aginen dira, gaztelaniaz edo euskaraz.

II. Ikastetxeek hartu beharreko erabakiak

Ikastetxe bakoitzeko irakasleek ondokoei buruz erabaki beharko dute:

- zein ziklok eta mailak hartzen duten parte
- zein jarduera eskatuko duten
- nola lortuko dute aprobetxamendu didaktikoa hoberena
- zein profesional izan nahi dituzten
- zein irakurketak proposatuko dizkiete bere ikasleei
- zein izango da irakurketaren modua aproposagarria.

Horretarako, *Programaren* baldintzak izanen ditu kontuan, honi dagokionez:

- jardueren banaketa, ikastetxez ikastetxe
- partaide kopurua, gehienez, jarduera bakoitzeko
- eskura dituzten profesionalen zerrenda.

www.vamosaleerpamplona.com WEB orrian agertzen den “*Orientazio*” botoian, daude horri buruzko gogoeta eta iradokizun lagungarriak.

III. Irakasleendako orientabideak

fira lan taldeko profesionalak ordubeteko orientazio bilera bat egingen dute izena eman duten Ikastetxeetan, jarduera osagarrietan parte hartuko duten taldeetako irakasleekin. Ondoko bi helburuak dituzte:

- antolamenduari buruzko iradokizunak ematea, curriculumeko jarduera osagarriak didaktikoki hobeki aprobetxatze aldera;
- *Programan* gonbidaturiko profesionalen testuen eta haur eta gazteentzako bildumetan argitaratu eta gai edo estilo interesgarria duten liburuen berri ematea, bai eta kontalariak lan egiten duten literatur inguruneaz aholkularitza ematea ere.

IV. Curriculumarekiko osagarritasuna

Irakurketa sustatzeko Programa honek curriculuma osatzeko jarduerak biltzen ditu, eta jarduera horiek bizipenei daude loturik, literaturaren didaktika komunikatiboa aberasten dute eta programazioarekin dagoen uztarketari esker, irakaslearen eguneroko lana indartzen dute.

Hain zuzen ere, *Programaren* beraren jarraitasunak erakutsi du, ongi erakutsi ere, jardueren aprobetxamendu didaktikoa gero eta handiagoa izanen dela, gelaren eta zikloaren programazioan zenbat eta gehiago integratzen den. Alde horretatik, irakasleei dagozkie curriculumaren edukiak, helburuak eta jarduera horien bidez landuko dituen programazioaren arloak zehaztea, jarduera horiek motibazio gisa, interesa pizteko edo erreferentziako egoera hezitzaile gisa erabiliz. Halaber, irakasleei dagozkie programa garatu aurretiko eta ondoko lanak ebaluatzea.

V. Inskripzioa

Inskripzio orria berdina da Ikastetxe guztientzat: orria betetzeko aurreko orrialdean aipaturiko jarduera kupoak eta kapitulu honetan zehaztutakoa izan beharko dituzte kontuan. Bestetik, ezarritako epean barne igorri beharko dute.

VI. Informazioa, kontsultak, ikastetxeendako lagunaza

fira taldeak argibideak emanen dizkie irakasleei, antolamenduaren eta aprobetxamendu didaktikoaren edozein alderdiri buruz, bai eta kontsultei erantzun edo ikastetxeetako informazioa jasoko ere, ondoko hauen bidez:

☎ 948 26 32 25 fax 948 26 37 61

☎ info@vamosaleerpamplona.com

☎ web www.vamosaleerpamplona.com

☎ firaeduc@firaeducacion.com

☎ eta helbide honetan: Iratxeko Monasterioa kalea, 3. 31011, Iruñea.

Halaber, firako kideak ikastetxeetara joanen dira, informazio bilerak egiteko, eta programazioaren gainontzeko jardueretan beste profesionalak laguntzeko.

VII. Eskaerak: lehentasunak

Izena emateko orria betetzerakoan Ikastetxeek egiten dituzten hautaketak lehentasunezkotzat joko dira aukeratutako profesionalak bertara joanen diren zehaztu arte. Presentzia horretarako beharrezkoa izanen da, *Programaren* baitan gutxienez bi lan saio egiteko, ikastetxe batean edo gehiagotan eskatu izana.

VIII. Soberako jarduerak

Programan inskribitu ez diren Ikastetxeen jarduerak edo ezarritako kupuaren azpitik eskatzeagatik soberan gelditutakoak, inskripzioa egiten duten Ikastetxeen artean banatuko dira.

IX. Ikasle kopurua, jarduera bakoitzeko

Komunikazio elkarrekintza egokiena lortzeko, jarduera bakoitzean 50 ikaslek edo bi ikasgela-taldek hartzen ahalko dute parte, gehienez ere. Horrela, esperientziak inguru literario batean izan behar duen bizipen izaera gorde nahi da.

X. Jarduerak egiteko lekuak

Jarduerak ikastetxean bertan eginen dira, horretarako erabilgarri diren tokietan. Eskola curriculum osatzeko jarduerak dira. Ez da eszenatokirik ez megafoniarik behar; sonoritate ona eta argi naturala dituzten leku lasaietan –ikasgeletan, erabilera anitzeko geletan...– emaitza hobea da.

Gomendatzen da parte hartuko duten taldeek alde zuzenetik toki horiek apaintzea, giro gozoa eta hurbila sortzeko.

XI. Orientazio bilerak

Irakasleei orientabideak emateko bilerak alde zuzenetik adostuko dira; izan ere, harremanetan jarriko gara data eta ordutegia zehazteko. Komenigarria da gainontzeko jarduerak egin aurretik biltzea. Horretarako, garrantzitsua da izena emateko orrian adieraztea zein egun eta ordurik den onena jardueretan parte hartuko duten irakasleekin bilera egiteko.

Bilera horiek posible egiten dute esperientzia didaktikoak elkartrukatzea eta irakurketa sustatzeko jarduerak izaera komunikatiboa duen currículu eremuan kokatzea, halako eran non *Programaren* aprobetxamendu didaktikoa hobetuko baita; izan ere, hori eman zuen aditzera ikasturtea bukatutakoan irakasleek egindako ebaluazioak.

XII. Bisitan etorriko diren profesionalekiko harremana

Ikastetxeek, idatziz, ahoz edo telefonoz, firari, landu nahi dituzten arlo zehatzen berri ematen badiote, bisitan joanen diren profesionalek aldeztatik jakiten ahalko dute zein eduki espezifiko landu behar dituzten, eta horrela taldeek zein irakasleek eskatzen dutenera egokitu. *Jardueren Baieztapen Formularioak* horri buruzko atalak dauzka.

XIII. Jardueren Baieztapen Formularioa

Eskatutako egilea edo narratzaile ikastetxera joateko, ezinbestekoa da bere etorreraren konfirmazio data baino 30 bat egun lehenago irakasle eskatzaileak jasoko duen JARDUEREN BAIEZTAPEN FORMULARIOA behar bezala betetzea eta firara itzultzea. (Cómo Participar atala begiratu: **JARDUEREN BAIEZTAPEN FORMULARIOA**)

XIV. Segimendua eta ebaluazioa

Inskripzio orrian – Web honetan eskuragarria - jarduera eskatu duen irakaslearen izena azalduko da; horrela *Programaren* koordinazioa eta segimendua erraztuko da, eta emaitzen ebaluazioa bideratuko. Jarduera bakoitza bukatutakoan irakasleei *Ebaluazioa egiteko orria* emanen diegu.

Irakasleen balorazio eta iritziak *Programaren* memorian sartuko dira, eta horiek kontuan hartuko dira hurrengo edizioen edukiak diseinatzean.

XV. Egutegia

- *Ikastetxeek izena emateko* urriaren 15a arte

Ikastetxeek 2008ko urriaren 15a baino lehen bidali beharko dute firara *Izena emateko orria*, faxez, postaz edo bertara eramanez.

- *Ikastetxe bakoitzeko programa* azaroaren 8a baino lehen

fira taldeak idatziz emanen dio jardueren egutegia ikastetxe bakoitzari, 2008ko azaroaren 8. baino lehen.

- *Programa aldaketak* azaroaren 12a arte

Ikastetxeek 2008ko azaroaren 12a arte eskatzen ahalko dituzte egutegi-aldaketak, dela aurreikusitako beste jarduerekin bat egiten dutelako, dela ordutegia aldatzea komeni zaielako...

- *Jardueren hasiera* azaroaren 17a

Eskolako ordutegian eginen diren sustapen-jarduerak 2008ko azaroaren 17ean hasiko dira. fira taldea kurtsoaren hasieratik jarriko da harremanetan ikastetxeekin, orientazio bilerak egiteko egunak zehazte aldera.

- *Jardueren Baieztapen Formularioa*

Ikastetxe bakoitzeko egutegia itxi bezain laster, eta jarduera baino 20 edo 30 egun lehenago, irakasle eskatzaileak formularioa jasoko du behar bezala betetzeko eta firara bidaltzeko; profesionala ikastetxera joateko jarrita duen data baino lehen.

- *Ebaluazioa* ekainaren 10a baino lehen

Irakurketa sustatzeko jarduerak 2009ko ekainaren lehenengo egunetan bukatuko dira. Ikastetxeek hilaren 10a baino lehen bidali beharko dituzte alde zuzenetik igorri ez dituzten ebaluazioak. Halako orriak taldean edo ikasgelan egindako sekuentzia didaktikoa bukatutakoan betetzea gomendatzen dugu.